

Klima-aldaketara egokitzeko plana eguneratzea

Onartu eta hiru urtera, beharrezkotzat jo da plana sakon berrikustea eta beharrezko doikuntzak egitea, klima-aldaketara egokitzeko eremuan udal-ekintza bideratuko duen tresnak erabilgarria izaten jarrai dezan. Plana eguneratu da, honako alderdi hauek kontuan hartuta:

- **EZAGUTZAN EGONDAKO AURRERAPENAK TXERTATZEA:** bai planaren beraren esparruan egindako azterlanen bidez, bai beste administrazio batzuek egindako ikerketen eta aurrerapenen bidez, azken urteetan sortutako ezagutzari balioa eman zaie.
- **NEURRIEN ZEHAZTASUN MAILA HANDIAGOA:** ekintza guztiek dute gauzatzeko behar den zehaztasun-maila.
- **AURRERAPENEN ETA LORPENEN IKUSGARRITASUN HANDIAGOA:** planeko jarduketaren inguruko komunikazioa eta sentsibilizazioa, herritarrengana gehiago hurbiltzeko eta jarduketaren berri emateko.
- **KANPOKO FINANTZAKETA LORTZEA:** plana, oro har, finantzaketa erakartzera bideratuta dago, eta ekintza batzuek finantzaketa-lerro bat izan dezakete lotuta.
- **EGOKITZECO BATZORDE TEKNIKOA INDARTZEA:** Planak garrantzia are handiagoa ematen dio Egokitzeko Batzorde Teknikoari, eta haren eraketa erregelamenduaren bidez esleitutakoek dituzten eginkizun osagarriak ematen dizkio.

Gogoeta horiek kontuan hartuta, 2017an onartutako plan osoa aztertu da, eguneratzeko premia nagusiak identifikatzeko. Era berean, erreferentziazko udalerrietako egokitze-planak kontsultatu dira, inspirazio iturri izan daitezkeen ekintzak eta ikuspegiak identifikatzeko.

Hori guztia kontuan hartuta, Plana eguneratzeko prozesu horren emaitza, zenbakitan, honako hau da:

Plan berri bat, **33 ekintzarekin**, horietatik:

- 20 ekintza 2017an onartutako planetik eratorritakoak dira
- 4 ekintza birformulatu egin dira
- 9 ekintza berriak dira

Bestalde, 2017an onartutako planeko 8 ekintza ezabatu egin dira, edo erreserban dauden jarduketatzat jo dira; izan ere, hainbat arrazoiengatik, ikusi da ekintza horiek planaren esparruan gauzatzea ez zela guztiz bideragarria.

Jarraian, **7 eremuren arabera egituratutako ekintza** eskema aurkezten da:

KULTURA KLIMATIKOA: Kultura klimatiko handiagoa duen hiria	1	Egokitzapenaren arloko sentsibilizazio-ekintzak indartzea eta sistematizatzea, eta klima-aldaketak hirian izan ditzakeen ondorioen berri ematea herritarrei.
	2	Merkatu berriak eta klima-aldaketaren ondorioz sor daitezkeen aukera ekonomiko berriak aztertzea.
	3	Bi urtean behin txosten bat egitea, klima-aldaketara egokitzearen arloan egindako jarduketaren eta lortutako emaitzen berri emateko.
	4	DSS Klima Adapt aplikazio mugikorra doitzea, ezagutaraztea eta haren erabilera sustatzea.
BARNE ANTOLAKUNTZA: Klimarekiko ardura duen udal administrazioa	5	Klima Aldaketara Egokitzeko Sailarteko Batzordea sendotzea.
	6	Klima-aldaketara egokitzeko prestakuntza-plan bat osatu eta gauzatea udal-sail guztientzat.
	7	Finantzaketa-iturrien bilaketa indartzea eta Plan honetan jasotako neurriak ezartzeko dauden ildoak finkatzea.

HIRI DISEINUA: Hiri-eredua klima-gaietarako	8	HAPOren berrikuspenean klima-aldaketara egokitzeko irizpideak eta berariazko azterketak txertatzea.
	9	Hiri-diseinuko irizpideak txertatzea, irtenbide berdeen aplikazioa sustatzeko.
	10	Konfort termikoko azterlanak egitea mikroeskalan, hiri-espazio erosoan diseinua hobetzeko.
	11	Konfort termikoari eta mikro-eskalako uholde-arriskuari buruzko azterlanak egitea, hiri-espazio erosoan diseinua errazteko.
	12	Haizearen datu historiko eta etorkizunekoei buruzko azterlan bat egitea eta jarduketa neurriak zehaztea.
BEROARI AURREA HARTZEA: Pertsonak zaintzen dituen hiria	13	Hiriko mapa termikoa edo hiriko klimaren mapa bat egitea, puntu kritikoak ezagutzeko.
	14	Mapa termikoa eta energia-katastroa gurutzatzea eta emaitzetan oinarritutako erabakiak hartzea.
	15	Bero-boladen aurrean prebentzioan jarduteko protokoloa eguneratzea Osakidetzarekin lankidetzan, eta prebentzio-ekintzak abian jartzea agente eskudunekin koordinatzea.
	16	Datu atmosferikoen tratamendua sistematizatzea eta osasunean duten eragina aztertzea.
	17	Biodibertsitaterako interesgarriak diren eremuetan sute-arriskuaren aurrean dagoen protokoloa berrikustea.
HIRI BERDEA: Hiri berdeagoa	18	Hiriko plaza, espazio eta eraikin publikoen azalera berdea eta iragazkorra handitzea.
	19	Teilatu lauetan eta eraikinetako balkoietan landare-estalkia jartzeko aukera sustatzea.
	20	Erdialdeko eta Groseko etxadi-patioak berdatzea sustatzea.
	21	Tenperaturaren eta bero-boladen igoerak biodibertsitatean duen eragina aztertzea.
	22	Ibilbide berdeen eta aterpe klimatikoen mapa bat egitea, hiri osoan barrena ibiltzean, beroaldietatik babesteko aterpeak eskura edukitzeko.
	23	Errodadura-eremuak, bideak, bidegorriak eta espaloiak berdetzea, oinezkoentzako gunee erosoak sustatuz.
KOSTALDEA: Uholdeen aurrean babestutako hiria	24	Uholdeen kartografian oinarrituta, itsas oldeen eta olatuen eraginpean dauden udalerriko azpiegiturak berrikusteko eta mantentzeko prozedura ezartzea.
	25	Aldian-aldian eguneratzea uholdeei aurre egiteko larrialdi-zerbitzuen protokoloa, klima-aldaketaren ondorioak kontuan hartuta.
	26	Olatuek eta itsas mailaren igoerak udalerriko korranteetan eta hondartzetan duten eragina eta horrek turismoan duen eragina aztertzea.
	27	Olatuek eta itsas mailaren igoerak korranteetan eta hondartzetan duten eraginari eta horrek turismoan duen eraginari buruzko azterlanekin jarraitzea, eta emaitzak oinarri hartuta erabakiak hartzea.
UHOLDEAK: Uholdeen aurrean babestutako hiria	28	Ibaien ibilgua birnaturalizatzeko aukera balioestea, ibaiertzetako uholde-eremuetan edo urpean geratzeko arriskuan dauden eremuetan.
	29	Drainatze Jasangarriko Hiri Sistemak aplikatzea (DJS).

	30	Uholde-arriskua duten eremuen kudeaketa eta/edo eskuhartzea koordinatzea agente publiko eskudunekin.
	31	Kostaldetik kanpoko uholde-gertaerak hobeto ezagutzea.
	32	Saneamendu-sarean beharrezko hobekuntzak egitea.
	33	Sentsoreen bidez maila freatikoaren gorabeheren aurreikuspen sistema bat garatu eta aplikatzea, baita saneamendu sarean ere, eta mendi-magaletan euri-jasa gogorren ondorioz gerta daitezkeen lur-jausiak aurreikusteko sistema bat garatzea, hori ere sentsore bidezkoa.